

UNAMUNO, Euskal olerkari

Aurten ezta egunerokorik ez al-dizkaririk gelditu, andik edo emendik. Unamuno'ri ukutu gabe. Bere uts eta guzi ere, gizon jatorra gen-dun noski. Beraz bere burua ez omen zun ulertzen, ezta ez dute ulertu, aren barne-osineraio ez dira iritxi, aurten aretaz itz egin du-ten asko ere. Gizon sakon olerkai-tza nimbait.

Bilbao'n jalo zan 1864ko irailaren 29'an, gaur 16'garren zenbakia daraman Erronda kalean. Umetan karlista gerrak ateria zitun dunbot-sak entzuna zan. Batxiller ikaske-tak Bilbao'n bertan egin ondoren, 1882'an, lendik oso Jainkozale ba-zan ikas-arlo nagusiak osatutzeko. Anglo giro ustelsik eraginda edo, 1882'an, lendik oso Jainkozale ba-zan ere, erlijio-gauzak bertanbera utzi zitun. Zer gerta zan gazte aren biotzean? Garai artan Europa'ko ja-kinlariak etzuten nai Jainkoren be-u-ren ikas-sailletan, eta Jainko ga-be izatea aunditzat zeukaten Gure gaz-tea ere aien arteko egin zan; baina bizitza guzian jarraitu zion odolean zeraman euskal ezten fedetsua. Nai-ta ere ezin izan zua egundo ber-a-gandik bota. Eta garraxika dabilki-gu estu ta larri bere bizitza luze guzian.

Garraxi dira bere idatziek; garra-xi ta ciu biziak dira, batez ere, bere olerkiak (poesiak). Berrogei urteko zala asi zan olerki idazten; eta ez inoren bidez, bere-berea asmatu ta andik ibilliko zaigu beti. Latza de-gu geienik aren poesi-azala, musika gutxikoa: ortarako gai zan arren, erzun azalkeririk nai, giar utsa bai-zik; barne-muiña nai zun pentsa-mentuz ta biotz-ikaraz ondo beterik. Unamuno'k auxe gura zun, olerkiak ondutzean batez ere: pentsamentu batek, naiz barren-zauskada batek, naiz munduko ikuskin batek sor-tu-azitako liriku dardara bertso itxu-ran ezilkortu. Eztu beste asmorik, eta nere iduriz, lortu zun xede ori egin zitun olerki-lan bikainetan.

Ona bere poesi liburu batzuk: «Poesías» (1907), «Rosario de sone-tos líricos» (1911), «El Cristo de Ve-

lazquez» (1920), bere oberena nun-bair; «Andanzas y visiones españo-las» en azkenean datoztenak (1922), «Rimas de dentro» (1923), «Teresa» (1924), «De Fuerteventura a Pa-ris» (1925), «Romancero del destier-ro» (1928) eta argitaratu gabe utzi zun «Cancionero». 1928'ko otsailaren 26'an asi zan Kantutegi an idazten, era egunero, bederatzi urte lu-zetan, jarduna degu idatzi ta idatzi; 1936'ko lotazillaren 28'koan du az-kena, il zan baiño iru egun aurrera-go idatzi zuna. «Cancionero» au Buenos Aires'ko Losada etxe argi-taldariak irarri zun 1953'an; guztiz 486 orrialde ditu, ta 1755 olerki, la-burra geienak.

Idatzi zitun libururik geienak be-zela larritasunez gaiñezka dauzkagu aren olerki guztiak. Askotan, gaiñera, Jainko-billa dabil aspergaitz. La-rrri ta kezka oien artean ba-zuen bes-te berezi bat: erri-maitasuna. Una-muno'k bota zitun iñoiiz bereak eta bi gure gauzen aurka, gure izkun-tza bereziaren kontra. Baiña maite zun euskal lurra, maite zitun berta-ko gauza ta gizonak. Odolak onan-tza bultz eragiten ziola esan geneza-ke. Bein, aspaldiko lagun zar batekin topo egin zun Bilbao'ko kale ba-tean. Aren poza! Biotz-ikara gozoz ugertzen zaigu Bilbao deritzan poesi ontan:

*Gaur gozartu zaitut, Bilbao. Goi-zetik urilagun batekin txil ein der bidean, neu lez zure seme bat, bere zorionez. Ibaizabal'en argia aren begietan eta gogoa bere izketa doinuan, zaintsu ta urduri bere naro goza-

[tsuan, zure kide ta antzeko, ene uri maite,

Nere eskuetan euki nuen luzaroan aren esku ardura gabekit utzia, eta agur egitean, neretzat, niñonan: gizaseme guztiok anai gera ziur, Bilbao audiago bat mundu guztia».

Gaztel-arlora iger egin zigun, tamalez, gaztetan: Azkue'k, Txomin Agirre'k eta beste askok bezela gu-rean ari izan ba'litz, jakin ez nola-ko indar-bultzada emango zion gu-re izkuntzari bereziki. Jakinlari, no-belagille ta olerkari punterengo be-zela mundu guztian ezaguna degu. Ta idaztean, bertsoz beintzat, euske-ratz egin zitun bere lenengo saioak. Oraiñarte bi ditugu ezagun, biak bere lengusu Arantzadi'tar Teles-por'ek Barcelona'n eskuz idatzi ta gorderik zeduzkanetik artu 1937'an Arrategibel'ek Paris'ko *Euzko De-yan* argitara emanak. Bata, *Gabon-abestia*, nere olerki bilduman (676' garren orrialdean) sartu nuen eta N. Etxaniz'ek ere aldizkari ontan aurtengo urrillak 4'an eman zigun.

Bigarrena emen doa. Aberkoia berau; gaztetan egiña, ta ezta arri-teko, esan degunez karlista guda-keta ikusia baitzan. Bere adiskide maite Domingo Ellakuria jaunari es-keini zion, eta berberak dionez, Probintziko euskeraz ondua dago.

GORA

Nun daude orain, anayak, gure lege zurrak?

nere erriko bakarrik nik dakust negarrak.

Errekatxuak daude negarrez betiak, gure biotzak ere gaixo ta illunak.

Ta nik aditzen nuen, aur batek zanean, nere erriko kantak mendien artean.

Gure aiten Jaungoikoa, barkatzen gaitzu? Gure biotzen miña, ah, Jauna, dakusu!

Bada nik ora in dakust malko ta negarrak, ta dantzut nere erriko miñaren oyuak. Jauna, guk biar degu zure argi garbia; guk eskatzen zaitugu, gure Jauna, argia.

Egiaren eguzkia argitzen dituena munduko garbiarik zillarra bezela.

Maite gaitezen beti, gure maite anayak, eta izango gera biotz baten danak.

Zuek esaten dezute: «Aurrera, aurrera!», «Gernika'ko arbola!», erantzun da, «Gora!»

Gora ta zeruraño joango gera emetik, txoritxuak bezela gora-goraturik.

Dakizute, anayak, zeren gure arbola ain makurturik dago ta mastrikatua?

Zeren ura biar du, izerdiko euria ta amorioko bero euri ta beroa.

Atozte, nere anayak, gure erri ikustera: ereun batek ura orain, bai, dagola.

Gure Jaungoiko andia!, lajatu etzazula zure seme txikiak izango dirala.

Ba-dira une batzuk argi lar ba-geak; ala ere, asi-berri batentzat ezta olerki kaxkarra. Arrese-Betia-ren Gernika'ko Arbola ta olakoak irakurri ondorean, egiña da nimbait. Garai artan, gaiñera, euskal foruak galtzean, moda zan olako neuritzak abestea. Ez dakigu nimbait ager-ruak diran. Dana dala, erderazkoetan lakoxe kezka ta urduritasuna erakusten du euskerazko bi auctan ere. Jainko-lera ta aberri-lera ziran, noski. Unamuno'ren biotz-barnean min eta kezkarik bizien sortu ta iraun-azi zutenak.

AITA ONAINdia

TEAN

Carlos Santamaria'

este aldean jarri bear dala diote, tres-e-jostallu izango balitzakean bezela. Ko usteak, zoroen asmaketak eta txa-metsak besterik ez dira olerkarienenez.

olertia ta bertsoa nahasten dute. Beste ia eta sentimentalismoa bat direlako de.

tieraziko diegu poesia gausa serioa ta lala eta gure Gaudiaga, Aresti ta amal-

OSBORNE Y C. S. A.